

Gabon, lagunok. Gabon, Xabier.

Hitz batzuk esateko eskatu didate Xabier Olarraren ibilbidea eta aportazioa hurbiletik ezagututa egokia izan naitekeelakoan. Nik gauza batzuk nabarmenduko ditut. Seguruena, beste batek beste batzuk nabarmenduko lituzke.

1) Lehenbizi, lasai egoteko esan behar diat Xabier. Batzuek esaten dute batek ibilbide oso bati ematen zaion saria jasotzen duenean, omenaldia egiten diotenean, kezkatzen hasteko motiboak izan behar dituela: edo oso zaharra da edo azkenetan da. Ez kezkatu horregatik, Xabier: Dabilen Elea sarian, behinik behin, ez duk horrela. Ez duk horrela izan orain arte saritutakoekin, eta are gutxiago orain. Asko egin duk, eta asko daukak egiteko, eta horren erakusgarri argia duk nola bizi haizen orain. Gazte jubilatzeke zortea izanik, fraideak baino lehenago jaikitzen haiz goizean jo eta su lanean aritzeko. Asko daukak emateko. Poztu gaitezen: jubilazioa hartu du, ez erretiroa.

2) Beste gauza bat ere adierazi nahi dut: batzuek Xabierri esker ikasi duguna. Ez diogu kasu handiegirik egin behar pertsona bat ezagutzen dugun lehenbiziko eguneko inpresioari. Itxurak ez gaitzala engaina. Nola da posible maiz itxuraz behintzat hain manera zakarrak dituen pertsona bat gero hain goxoa izatea. Xabier, edo urtetan gora joan ahala goxoagoa bihurtu haiz, edo lotsatiaren estrategia duk hori. Xabierren ondoan egon garenok hamaika aldiz sumatu dugu nola dagoen beti laguntzeko prest, ondokoaren bizitza errazteko prest. Eta hori handia da. Igual ohartu gabe, igual nahi gabe, urteak bete ahala, ozpindu beharrean, goxoa bihurtu haiz: jakinduriaren seinale.

3) Itzulpengintzan behintzat, bideak urratu ditu Xabierrek. Hori badakigu denok. Baina badago gauza bat, bereziki eskertzekoa: literatur itzulpenean trebatzeko aukera eman digu askori, itzulpengintzaren ateak ireki dizkigu askori. Badakizue zenbat jendek izan duen horretarako aukera Xabierrek animatuta? Askok. Euskal Herriko itzulpengintzaren historia idatzi behar bada inoiz, Martuteneko eskolaren garrantzia edo Itzulpen Karrera sortu izanaren garrantziarekin batera, "Olarraren edo Igelaren eskola, Iruñeko eskola" aipatu beharko litzateke, han ibili baita Xabier: "tori, egizu hau, lasai, zuzenduko dugu gero..." Espainiako literaturan "27ko belaunaldia" dagoen bezala, "Olarraren igelkumeak" aipatu liteke, "Olarraren zapaburuak".

4) Baina bada beste kontu bat nabarmendu beharra, niri hagitx ederra iruditzen zaidana. Xabier, bai itzulpengintzan, bai edizioan, oso isilik aritu da lanean, baliabide gutxirekin, hots handirik atera gabe. Batzuek IGELA akronimo bat delako zurrumurrua zela zabaldu zuten, oker, segur aski: irabazi gutxi eta lan asko. Ez da hori. Xabierrek erakutsi digu asko egin daitekeela gogotik saiatuz gero, eta kulturaren aldeko apustuak indar handiagoa izaten ahal duela diruak eta botereak baino. Txikigintzan aritu da, eta hori esperantza iturri da ahularen indarrean sinesten dugunontzat, txikiaren handitasunean sinesten dugunontzat.

Horregatik, Xabier, mila esker. Segi bizkor lanean, eta bihar, berriz ere, goizeko 5etan, lanera.